

Rhododendron generoa, gutxi gora-behera, 1.200 espezetan dibertsifikatua dago, hauetariko asko jardingintzan kultibatzen direlarik (azaleak esate baterako). Euskal

J. Terés



Herriari dagokionez, *Rhododendron ferrugineum* espeziea bakarrik azaltzen zaigu. Aztergai dugun erro-dodendro hau mulua edo zuhaixka txikia da (1,2 m-rainokoa), adar tente, bihurri eta zurkara itxurakoa. Hostoak iraunkor-rrak izaten dira, eliptiko-luzangak, zorrotzak eta mukronatuak.

Gainaldean, berde distiratsuak eta azpialdean, berriz, berde-horiskak hasieran, gerora

herdoil-kolore tipikoa izanik. Hostoaren azpialdea ere ezkatatzen da, bere ertza errobolotua izanik.

Loreak, aldiz, oso deigarriak dira. Uda garaian, urtero, Euskal Herriko Pirinioak kolore arrosa-gorriskaz janzten dituzte, paisajeari zertzelada xarmargarria eskainiz. Hauek adar-muturretako matsal-koetan azaltzen dira, ginbail-forma tipikoa osatuz. Kanpaniformeak edo inbutu-formakoak izaten dira, eta altitudearen arabera ekainetik abuztura bitartean loratzen da. Fruitua kapsula luze bat izaten da; 5 kuskutan irekitzen dena.

Errododendroa mendi garaienetan bizi da: Jura, Alpe, Pirinio eta abarretan, eta lorzoru silizeoak begikoak ditu. Harritza, oihanpe (mendi-pinuko oihanpeetan batez ere) eta sastrakadi subalpetarretan azaltzen da. Euskal Herrian, Pirinioetako zona garaienetan baino ez dago, bere banaketa-arearen hego-mendenbaldeko muga Larran duelarik.

Landare hau toxikoa da eta sendabelartzat erabili izan da. Ditu-en substantzien artean, taninoak, arbutina glukosidoak eta andromedotoxina aipatzen dira bereziki. Erreuma eta hezueria sendatzeko ahalmena duela eta diuretikoa dela esan ohi da. Odola garbitzeko ere balio omen du.

Baina, kontuz! Toxikoa baita.



Errododendroa, mendi garaienetako mulua

Joxepo Terés

FITXA TEKNIKOA Errododendroa

Familia:	Erikazeoak
Espezia:	<i>Rhododendron ferrugineum</i>
Banaketa:	Bakana
Habitata:	Harritzak, oihanpe eta sastrakadi subalpetarrak
Sendabelarra:	Bai

